

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

483/2025 Erabakia, abuztuaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Behin betiko onestea Aguraingo udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketa

Ekainaren 30eko 395/2025 Foru Aginduaren bidez, behin-behineko onespena eman zaio Aguraingo udalerrirako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzorua mugaketari. Mugaketa hori egin da AIU 4 (hezkuntza kirola) delakoaren hiri antolamendurako plan berezia eta AIU 5 (Opakua hirikoa) delakoaren hiri antolamendurako plan berezia behin betiko onestek eragindako aldaketengatik. Halaber, Egileor eta Arrizalako guneen mugaketa egokitu da AIU 41 (Egileor hirikoa) eta AIU 39 (Arrizala hirikoa) direlakoetara, hurrenez hurren.

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginaren 11. artikuluen 4. apartatuaren arabera, Arabako Foru Aldundiak entzunaldia eman behar die dagokien udalei, gehienez ere 15 eguneko epean egoki jotzen dutena jakinaraz dezaten. Udalak ez du inolako desadostasunik adierazi hartutako ebazpenaren inguruan.

Bestalde, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 6ko 50/2018 Erabakiak behin betiko onetsi zuen ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako Aguraingo udalerrirako hiri ondasun higiezinaren lurzorua eta eraikuntzen balioztapen txostena.

Horren ondorioz, hiri izaera berriarekin bat datorren katastro balioa eman behar zaie udalerrirako hiri eremuari atxikitako lurzatiei, zeinak hainbat herrigunetan kokatuta baitaude. Katastro balio horrek bat etorri behar du Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 6ko 50/2018 Erabakiaren bidez onetsitako indarreko balioztapen txostenean onetsitako balioekin.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren foru diputatu arduradunak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- Onespena ematea, erantsita doazen planoen arabera, Aguraingo udalerrirako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzorua mugaketa aldatzeari. Mugaketa hori egin da AIU 4 (hezkuntza kirola) delakoaren hiri antolamendurako plan berezia eta AIU 5 (Opakua hirikoa) delakoaren hiri antolamendurako plan berezia behin betiko onestek eragindako aldaketengatik. Halaber, Egileor eta Arrizalako guneen mugaketa egokitu da AIU 41 (Egileor hirikoa) eta AIU 39 (Arrizala hirikoa) direlakoetara, hurrenez hurren.

Bigarrena.- Hori gorabehera, kontuan eduki behar da Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bategineko 3. artikuluen 2.b) apartatua ezarritakoa, hiri izaerako eraikinek okupatzen dituzten herrigunetik kanpoko lurzoruen tratamendurako.

Hirugarrena.- Hiri izaera berriarekin bat datorren katastro balioa ematea udalerrirako hiri eremuari atxikitako lurzatiei, zeinak hainbat herrigunetan kokatuta baitaude. Katastro balio horrek bat etorri behar du Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 6ko 50/2018 Erabakiaren bidez onetsitako indarreko balioztapen txostenean onetsitako balioekin.

Laugarrena.- Erabaki honen ondorioz ematen diren egintzak interesdunei jakinaraziko zai-zkie, Hiri ondasunen katastro balioak berraztertze eta aldatzeko prozedura arautzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 22ko 1080/1992 Foru Dekretuak 17. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Bosgarrena.- Erabaki hau ALHAOn eta lurralde historikoko egunkari salduenetan argitaratuko da. Gainera, jendaurrean egongo da 15 egunez, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak jar ditzaten. Agiria Aguraingo Udalaren bulegoetan jarriko da jendaurrean, halaxe xedatzen baitute Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginak, 11. artikuluen 5. apartatua, eta hura garatzen duen Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 15eko 1080/1992 Foru Dekretuak, 7., 8. eta 9. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M^a JOSÉ PEREA URTEAGA